

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Lehen top modelaren itzaltze tristea



Gia Carangiren azaletako batzuk. Carangi 90eko hamarkadako *top model* fenomenoaren aitzindaria izan zen hamar urte lehenago.

FILADELFIA (AEB), 1986KO AZAROAREN 18A. Gia Carangi modelo hil zen 26 urte zituela, hiesak eragindako pneumonia batek jota. Ezjakintasunak hiesa zuten gaixoak isolatzen eta baztertzen zituen garai horietan, kameraz inguratuta bizi izan zen Carangik ama soilik zuen alboan hil zenean. Handik bost egunera egin ziren hiletetan ere ez zen moda arloko inor agertu. Francesco Scavullo argazkilaria bidalitako dolumin txartela besterik ez zuten jaso.

Gia Marie Carangi Filadelfiako auzo pobreetako familia gatazkatsu batean jaio zen 1960an. Gurasoen dibortzioa eta gero aitarekin bizitzera joan arren, ama izan zen 16 urterekin modelo izaten saiatzera bultzatu zuena. Hurrengo urtean, Wilhelmina Cooper modelo agenteak Carangiren argazki batzuk jaso zituen, eta berehala New Yorkera ekarrarazi zuen modelogaia. Wilhelminaren eskutik, sei hilabete Filadelfiako neska errebelde beltzaranak begi argidun modelo ilehori klonikoen eredu estetiko haultsi zuen. Carangi ez zen diseinatzaile handien jantziak erakusteko bitarteko anonimoa; bera zen izarra, moda aldizkarietako protago-

nista. Hala, urte batzuk geroago iritsiko zen *top model* belaunaldiaren aitzindaria izan zen: Naomi Campbell, Claudia Schiffer, Cindy Crawford... Azken horrek Carangiren antza handia du, gainera.

Moda munduan sartu baino lehen ere Carangik drogak hartzen omen zituen noizean behin, baina arrakasta lortutakoan menpekotasuna areagotu egin zen. Eta 1980ko martxoan minbiziak Wilhelmina Cooper hil zutenean, modeloak iparra galdu zuen. Gero eta zailagoa zen harekin lan egitea, agentzietatik bota zuten eta lanik gabe geratu zen. Hainbatetan abiatu zituen desintoxikazio tratamenduak, baina azkenekoa burutu eta hiru hilabetez "garbi" egon ondoren, Atlantic City-ra alde egin eta heroina hartzen hasi zen berriro, gaixotu eta ospitalean sartu zuten arte.

Horrenbestez, lehen *top model*-a hiesaren ondorioz hildako lehen emakume ezaguna ere izan zen. Gia Carangiren azken nahia haurrentzat drogaren kalteei buruzko bideo bat grabatzea izan zen, baina, ironikoa bada ere, ez zuen kamerarik lortu.



Arrastoak

Greziarentzat berri on bat, behintzat

LAPURTUTAKO sei greziar erlikia aurkitu dituzte Londresko Temple arte galerian. Obra bakoitza 5.700 eurotan jarria zuten salgai. Bizantziar estiloko margotutako piezak dira, eta azken hamarkadan lapurtu dituzte Grezia iparraldeko monasterio eta eliza ortodoxo urrunetatik.

Richard Temple galeriako jabeak adierazi du ez zuela arrazoirik lanok lapurtuak zirela pentsatzeko, eta dagoeneko ikonoen eskubideak Scotland Yarden esku utzi ditu, atzera Greziara eraman ditzaten. Bitartean, esan gabe doa, iker-tu egingo dute zein bidetatik iritsi ziren erlikia horiek nazioarteko merkatura.

Sei pieza horiek berreskuratzeak ez du Greziako egoera ekonomiko larrian aldaketarik ekarriko, baina lapurtutako ondare historiko eta artistikoa jatorrizko herrialdera itzultzea beti da berri ona, greziar gehienek, une honetan, oso bestelako kezka dituzten arren.



SCOTLAND YARD

"Jaunaren amaren jaiotza", Temple galerian azaldu diren sei erlikia greziarretako bat.